



## “**ABERRI EGUNAK**”

**Zer da Aberria?**—Aba (aita) ta erri'tik dator itz au. Emendik gero: «aberkide», «abertzale», «abertzaletu», «aberrri-oitura» ta olakoak. Eta itz onen esangurea sustraiz jakin nai izan ezkeru, iru alderditik beintzat begira dezakegu: 1) jaiogarean lurra esan nai du, uri naizlekua; 2) baita geure-geurea dugun sort-erria, len-orain-geroko gauza ta egite guztiekin ornitua, eta 3) azkenez gogotan artu dezakegu gorputzez, adimenez eta ezpirituz ase ta edertzen garean tokia ere. Erraza, abenda batek osotu oi du geienez.

Aberria laterri (lagi-lege-erri) biurtu daiteke. Zerki biok orduan batera joten dute; berez berdiñak ez izanik ere, egoki alkartzen dira. Biotatik bat ere ez dugu guk autatzen: ez dira guk aukeratuak ez

sorlekua ez jaiotz-eguna. Alabea-rrezkoa izan da guretzat, edo bear bada obeki Jainkoak emanikoa; bai, Berak jarten gaitu noski emengo edo ango aberrian betiko elburu baten zerbitzurako. Ez ote diogu esker onez ordaindu bear?

Gizonak bizia artzean artu oi ditu bere eskubideak ere, eta bete-bearrak. Giza-nortasunak, ordea, aberrian azaldu oi ditu eskubide oiek ezeren eragozpen eta kalterik gabe, bai nor danez eta bai erritar danez; oitura, kultura ta gaiezko arlo danetan azaldu ere. Ez dago bakarrik, auzoan bait dauzka berak lakoxe izkuntzan mintzatzen diranak; lantegian, plazan, elizan, jatetxean, itxasoan, mendian, edo zein tokitan ba-ditu arnasaz indartzen duten lagunak. Ez dago soilik,

aberkideak ditu biran, eta ez gutxi.

Ortik, beraz, ederra duzu aberria maite izatea. Ez lurra bakarrik, baita lur-zati orretan aspalditik bizi izan diran eta etorkizunean ere biziko diran aurre-ondorengoan, gure guraso ta seme-alaben oitura, lege, izkuntza, erlijio, kantu, dantza, soin eta ezpiritu dan guztia ere. Zati oietatik bat bazteruzten ba'duzu, zerbait palta zaio zure nortasunari. Zer guztiok osatzen dute, ezpairik gabe, gure aberria.

**Maitasuna zor diogu.**—Aberri-maitasunaren alde idatzi ta aolkatu dute, gizaldiak zear, gizon jakintsu guztiak. Nork ez ditu maite gurasoak? Erokeria litzake bizia eman digutenak ez maite izatea. Eta jaio eran ez ote dizkigu eman kontu ezin ala doai? Guk, euskaldunok, nolako lurralde dugun! Eta itxaso! Nai kale naiz baserri badugu guk ederrik! Gure ikastetxe, eliza ta iltegiak igarri gabe maitemintzen dizkigute biotzak. Gure bertsolari ta poetak milla bider abestu dituzte Euskalerrak dituen mendi, baso, aran, txori, abere, zeru ta itxasoetako edertasunak. Aberrian aditzen dira otoitz eta erregurik sutuenak, eliz-abesti bi-gunak amaren izkuntzan oiukatuak. Kantu aberkoiak, biotza askatuz eztairitik irtenak.

Badu beste zerbait ere aberri-

maitasunak, berezkoa ta ederra izanez gaiñera. Akino'tar Tomas'ek dionez, Jainko-legeko laugarren aginduarekin ere badu maitasun onek zer ikusia. Onela diosku: «Gizonak, Jainkoaren urrengo, gurasoai eta aberriari zor die guzti-guztia. Eta Jainkoari gur-egitea erlijioarena dan ezker, oneraspenak eskatzen diguna da gurasoak eta aberria maite izatea ere». Kristauak, beraz, duinki begitu bear dituzte aberria ta laterria, aberria biotzez maite izanez eta laterriari legez zuzena dana emanik. Au da: aberriari maitasuna zor diogu, ta laterriari leialtasuna.

**Aberri-korapilloak.**—Eder zaigununbait eta noznai, bakarrik ez gaudela jakitea. Doakabea noski aberritik urrun dabillena! Neure sorterrian, ordez, ez nago bakarrik neure irabazi, euki, ondasun, kezka, zaletasun eta goraberak zaintzeko: asko gara aberria osatzen dugunok. Eta aberkide auekin ar eman estua dut, eta korapillo ortan bizi naizela jakiteak poztasun bizia ematen dit.

Erri batek mendez mende, urteak joan urteak etorri, bere istori ta kondaira dagi; aurretik datozeri oitura zar, tradizio, eskubide ta legeak, aberri ondore joria moltzotzen dute; errialde baten kultura guztion kultura da, aberri erentzia noski. Oni deritzaiogu ain zuzen ere aberria. Ez da itz utsa, ondo

trinkoa baizik, ao betean esan oi duguna.

Ainbeste mesede ta bitxi eder ditugu beragandik artuak. Eta gaur zoritxarrez egiten ez duguna: asabakandiko eziera berezi, izkuntza berdin ta abar, erentziz bezela arturiko eskubide ta aberaski guztiok bear legez zaintu ta adertzeko, alkar korapillotu bearra dugu. Batasunak egin oi du kemena; banatzeak, ordea, aulkeria dakar. Etsaiak sarri, arerioa indargetzeko, orixe egin oi du, indarrak banandu. Gaur-egun gurean, bai aberriari ta bai izkuntzari begira, naspil izugarria sortu ta darabiltenak pekatu larria jauki dutenik ezin uka dezake iñork ere.

Bular beretik edoski dutenak bezelaxe, zentzuna errege dan toki guztietan, korapillo oieri esker, badu indarririk egiatzko abertzaletasunak. Ba liteke beiñola Kikero'k esana: «Patria est ubicumque bene est», nun ondo antxe Aberria, egia izatea, noizik noizera beintzat; olakoak ere bait dira. Baiña zentzunez ondo jantziak, arat-onat ibilli bearra izanik ere, maite du lurra. Ez diogu alperrik «ama» esaten aberriari, ta «anaiak» geure aberkideai.

Gaur, bakoitzak nai duena esan eta egin oi duen garai onetan, bada uste ta iritzi naasi, aldrebes, qalkorrek. Aberriak berezko duen esan-nai berezia ausi ta irauli gura

da; iritzi zabal baten izenean ori, dala nazio arteko gizartekeria (internazionalismua), dala gorrotosentipenezko gaikeria (materialismua) aitzakitatzat arturik. Lenengoak ez dute mugarik ezagutu nai, oizaseme guztiok anai garala-ta; bigarrenak diñoe: «Langilleak, zertarako aberriarik maitatu, gizarte-injustizia baiño ortik artzen ez baldin ba'dute?». Aiek, ala ere, aberriaren dakarren tresnak nazionalizatu bear dirala, oiuka diñoe; besteok ba-dakite geiegi ere gizonak bere aberrikiko berez duen maitasun-griña.

Barne daramagu aberria, ta kanpotik ere biltzen gaitu, berogarri zaigun gain-soiñekoak bezela; biotzez sentitzen dugu, atzez ikutzen. Gizatasuna maitatu bear dugula, ederkil, guztiok anai gara-ta; baiña ez ditzagun geure indar-kemena alperrik urtu, gure ekintza errez galtzen urrutiko bazterretan; emanak ditugun indar oiek erabilli ta erre ditzagun bizi bear dugun bazterrari onura atereaz.

**Eusko aberria.**—Esandako zer guztion osotasuna —lege, izkuntza, etni, ekandu, musika, erlijio, barne-arnasa— duzu euskal erria. Oiek antola oi dute erri baten nortasuna. Guzti oieri eustea egoki ta bidezko, geiago, naitaezkoa dugu. Eta orain batzuk oieri eustea, euskal kulturaren alde jokatzea, «burgesa» izatea dala. Irriparreari eus-

teko al? Euskal kultura ez da burgesa, ez proletarioa, denok egin duguna, euskaldun arima zaindu ta beti bizirik, auleri gabe, euki nai izatea baizik. Ez ditzagun gauzak ardatzetik atera; ez dezagun pellokeririk jaulki arazi.

Nastea badugu gaur politikan eta berri-emailletan; mundu guztiak jabetu nai du gure erriaz, politika alderdiak batez ere. Ez da, ala ere, gaizki esana J. M. Odriozola'k oraintsu (Z. A., 1976, apirilak 18-25) PCE alderdiari bota ziona: «Harrigarria da, hori horrela, abertzaleak ez zaretela esan eta zuen aldetik egon ohi den erreakzioa. Egia da ere, abertzale izan gabe euskara eta euskal kulturaren alde diharduenik egon dela eta egun ere badela gure artean. Horik nolana ere salbuespen batzuk besterik ez dira eta gure tesi hau haatik osoro frogarri da. Salbuespen hoieri euskaltzale dei egitea bidezko da, inondik ez abertzale. Euskal herrian bada garaia nor zehatz zein den jakiteko, alde honetatik». Baiña gaur, maiz bezela, ekintzak ez, itzak merke saltzen. Eta ur loian zarboak arrapatu gura.

Ene uste apalez euskaldun gaur guztiok abertzale izan bearean gaude. Baiña, zer da abertzaletasuna? Norbere erriaganako maite-leratik berez datorren griña, berriaren alde jokatzeko sua. Guk

aberri bezela geure etnia berezia dugu. Esan dut: guk lur-zati daukagu. Zenbat urtetik? Nork jakin? Euskalerrriak osotzen gure lurra, edo-ta euskal lurak osotzen du Euskalerrria. Berton bizi da euskalduna, euskeraz mintzatzen da. Gure izkuntza, bitxia duzu, inguruko izkuntzakin zer ikusirik ez duena: izkuntzak sailkatzean bakarrik utzi oi dute euskera, izkuntza «berezia» dala esanik. Orrez gain, beste zer askotan ere, ari ta izakera bestelakoak ditu euskaldunak. Aberria maite izan eta bereizkuntza guztiok zaindu ta aurrera eramaten lan egitea duzu abertzaletasuna.

**Nork jaso zuen gure erria.**— Abertzale aundiak izan ditugu munduan; bi aipatzeko, bat Rizal Filipinas'en eta bestea, De Valera Irlanda'n, oraintsu illa. Euskalerrriak, gizaldi luzeetan zear azka, bere eskuko izana dugun arren, gorabera gorriak ikusi ditu: aide nagusi arteko burruka, etsakeri, gerra... Eta negar zegien auetatik askok, igaro mendearen azkenerrantza batez ere, ia osorik galdua zuten aberri-kontzientziagatik. Negar zegiten, bai, israeldarrak beñola Babiloni'ko erbestetaldian legez, bere eresi-jogailluak saratsadarretatik zintzilika zituztela. Negarrak, ala ere, zer onik lekarken? Euskal erria gisa ortan, eskubide ta izkuntza, il-agiñean zegoelarik,

gizaseme guren bat sortu zitzaigun Abando'n —Arana-Goiri'tar Sabiñ—, Euskalerrriaren egoera estu orrekin konturatu zana. Izugarriko irrintzia bota zuen, Bizkaia batez ere, aurkitzen zan lozorrotik esnatu nairikan. Ark margoztu zuen eusko ikurriña, ark asmatu zigun Euskalerrri osoa, politika erakuntza bezela, barne artzen «Euzkadi» izena; ark esan zuen argi ta garbi: «Euzkadi da euzkotarren Aberria». Gazterik il zan —1865-1903—, tamalez, ainbeste espetxe, gexo ta goiti-beiti jasan ondoren. Baiña noiz ilko zegoen aberri bati arnasa berria eman zion.

Gizon erremia genduen, eta gertu zegoen zeukan oro Aberri alde amateko ere. Onela esan zigun: «Ondasun, bizi, adiskide, askatasun, dena dut Aberriari emana; ez dit makurrik egin ez osasun-galtzeak, ez adiskideak urritzeak, ez espetxeak, ez zernaitako aurrean erabilteak, neure erriari diodan maitasunean. Ez dut ezer nai nerretzat, eta dana nere erriarentzat; oraintxe berton, eta ez bein eun bider baizik, labainpean jarriko nuke nere lepoa, nere izenaren oroitzarik ere eskatu gabe, nere eriotzaz nere Aberria berbiztuko dala ba'neki. Bere bizitz-egun guztietan, eta eriotzaraiño artan ere, abertzale ez danak, ezingo du bere burua abertzaleztat eduki».

Bego nabari au ere: Kristautasu-

na nai zuen ark bere Aberriarentzat. Zergatik? Gure erriaren atzea, kondaira, erritar politiku izaera, berez-berez katolikua dalako. Ez ba'litza ere, ark ori eskatuko lukean. Baiña «nere erria orren aurka ba'legoke, nik nere erria ezeztatuko nuke ezinbestean; Jainkorrik gabe, ez dugu ezer nai». Ark bere idatzi guztietan egiten digu fede orren aitortpena. Ba-dakite, beraz, gaurko nastetzaille askok, gure abertzaletasunaren alderdirik beñena zein dan, Gauzak begoz garbil!

**Aberri Egunak.**—Naiz-ta astiro, aziaz ta indartuaz zioan abandotarrak ereindako azia. Erkala (Errepublikak) eldu zanean oroz gaiñetik, nasaitasun geiago nabari izan zan; auteskundeetan ere garaipen ikaragarriak euki zituzten abertzaleak; ainbat bazkune sortu ziran or-emen, erririk geienetan, gizonetako ta emakumezkoen artean. Azia erne, loratu ta uzta ematen zegoen. Eusko abertzaletasunaren urrezko eztaiak zirala-ta, jai ospetsu bat antolatu nai izan zan; Bilbao'n egin zan, 1932-3-27'an, Kristo'ren Berbizkunde egunez, lenengo Aberri Eguna. Etzan mitiñik izan, baiña burutu ziran erri-jai bikaiñak 65 milla abertzaletik gorakalkartu zituen. Poz-egun gaiñezkako, benetan!

Ondorengo urteetan ere, orrelaxe, egun berean, Berbizkunde igan-

ez ospatuko zan Aberri Eguna, gure erriaren bizi-naia ta Kristoren illen artetik biztutea maitezko begizta goxoan korapillaturik. Aurretik ebatziari buruz, 1933'an Donostia'n ospatu zan, 1934'an Gazteiz'en, 1935'an Iruña'n... Euzkaltzale Alderdiak eratu zituen Aberri Egunok, enparau alderdiak geienik oztupoak jarten zizkiotela. Jende-altra ikaragarriak batu oi ziran lau uriburu oietan. Bilbao'n ospatua zala-ta, onela abestu zigun K. Enbeita'k:

«Uri eta baserri, aran, mendi, baso,  
lior eta itxaso,  
euzko-abenda dabil santzo eta santzo,  
santzo eta santzo. [tzo,

Itxartu eta jagi zaitez, euzkelduna,  
argitu sentzuna,  
eta zuaz ospatzen Aberri-Eguna,  
Aberri-Eguna.

Urrezko eztegebak eiteko aldi,  
aldi egokija,  
Irakasliaz gora Euzko-Aberrija!  
Euzko-Aberrija!»

Gerra ostean etzan edu ontako jende-batzerik izan, 1964'an, ala ere, Eusko-Gobernuak, atzerritik noski, Gernika jarri zuen batze-une bezela, Pazko egunez an bildu zitezela nai zuten guztiak Aberri-Eguna ospatzeko: 60 bat mila pertsona batu ziran foru-urian. Urren-

go urtean Bergara'n ospatu zan; 1966'an Eusko Gobernuak Gazteiz aukeratu zuen, eta ETA'k Irun; 1967'an Iruña'n egin zan, eta 1968'an, Donostia'n. Ondorengo sei urtetan etzan deirik izan. Igaz, ordea, Gernika'n jaitu zan, ixil samar, Lendakaria bera ere andik izan zan arren.

«**Aberri Eguna 76**».—Aurten, euskal iparraldean erabakia zuten Iruña'n ospatzea erbestean bizi diran euskal alderdirik geienak, Baiña gero, bertoko nasteak eta espaiñar agintarien jarrera zirala-ta, ez ospatzea obetzat jo zuten. Izan ere, etatarrak Berazadi jauna il zutenetik, kezka ta larritasun gordiña, giro gaitza sortu zan euskal erri osoan, eta ez zeuden jairako euskaldun arima garrastuak, eta etzuten gura odol-ixurtze alperrikorik. Beraz, Jeltzale Alderdiak (PNV) lenengo ta ondoren Eusko-Indarrak, PSOE'k, PCE'k, UGT'ek, Langille Ordezkarriak eta USO'k, denak batean, jai edo batzar orokor ori urrengo baterako uzteko agiria izenpetu zuten. Lau eusko probintzietako agintariak, beren aldetik, batzar ori etzuela lagako ta berori debekatzeko esku artean zituzten tresna ta indar guztiak erabiliko zituztela iragarri ziguten.

Ala ta guzti ere, gogor-zaleak baitik bat, Iruña'ra eldu ziran egun orretan. Napar uriburu zarra gisa guztitariko poliziz josia idoro

arren, bertakoak eta kanpotiko talde ausart batzuk, goizeko amaletatik aurrera, Takonera'n, alderdi zarrean, Sarasate ibiltokian, Aralar eta Olite kaleetan eta abar, izan ziran zarata, ikurrin, ariñeketa, indar-erakuste olakoak, egunari zegokiona eman nairik. Baiña agintarien izkillu-indarrak laster eratxi zituen badaezpadako gora-nai oiek. Odolik? Iruña'n ez. Baiña Bera'n, mugaz onantza zetozen bi gazte, bata —Manuel M. Garmendia, Legorreta'koa— illa, ta bestea —Jose Antonio Etxebeste Artzuaga, Urruñan bizi dana— zauritua. Ildakoari Bera'ko apaiz-laguntzaille batek eman zion azken igurtzia, ta zau-

rituak, gorderik zegoen «Garaiar» baserrira ikustera joan zitzaion apaiz berberari Gure Jauna eramateko eskatu zion, ark orrela egiñik.

Talde ertzerakoiak ospatu zuten, ba, aurtengo Aberri Eguna, ETA'k, Komusnista Gaztediak, ORT'ek eta abar. Ondoren, egunerokoak ekarri dutenez, naikoa izan dira baituak; baita eurotatik bederatzi espetxeratuak ere, bost Burlada'n bizi diranak, eta beste bostetatik bi Iruña'n eta beste irurak Naparroa'tik kanpo bizi diranak.

A. O.

SARASATE. (Iruina zaarreko ibil-tokirik maitagarriena, errege ta erregin zaarrez jantzirik bai daukate gure napartarrek ibil-toki au.) Koxkok gaintuz, 1.000? aberri zale elkartu omen ziren Sarasate delako ibil-tokian, ikiurriña aideatuz, askatasunari kantatuz. Bainan indarra beti indar... eta ies-aldi!!! oiua aideetara. Batzuk etxeetara ta bestetuk esposaturik kerizpera.

TAKONERA. (Iruinako lorategi ta ibil-toki atsegiña) Askatasuna! Askatasuna! Askatasunari kantari 200 inguru neska ta mutill. Zibilak eta, tiroka, gomazko balaz, azaltzean, anakak astinduz eta arinduz, bereala igesari emen bear izan zioten.